



Wikipediatik hartua

Goiatz Labandibar sentimenduen esploratzaile

Goiatz Labandibar idazle oiartzuarrak, istorio bereziak idazten ditu eta bere kutsu pertsonala ematen die. Bere idazkera egunerokotasunean eta emozio desberdinetan oinarritzen da, irakurleari mundu berri bat islatuz. Goiatzek literaturaren bitartez aurkitzen du bere ahotsa eta bere lanek irakurleei sakon pentsatzeko eta benetan sentitzeko aukera eskaintzeaz gain, hausnarketarako ere bidea zabaltzen die.

Idazle bezala, Goiatz Labandibarrek hitzaren bidez bizitza adierazteko beharra sentitzen du. Liburuak sortzeko, normalean, ohiko bizitzan eta inguruan gertatzen diren istorioetan inspiratzen da eta pertsonaien emozioak eta egoerak bizirik transmititzen ditu.

Idazteko grina eta arrakasta

Azken urte hauetan, 39 urteko idazle gazte honek arrakasta handia lortu du argitaratutako liburu eta eleberriekin. Sentimenduak eta emozioak inork baino hobeto jorratzen ditu eta modu honetan, irakurlearen arreta guztiz bereganatzea lortu du. Txiki-txikitatik irakurle amorratua izan da eta horrek aukera eman dio bere zaletasuna paperean islatzeko eta irakurlea hain gustukoa duen literatur munduan erakartzeko eta murgiltzeko. Nahiz eta betidanik asko gustatu izan zaion irakurtzea eta idaztea, ez du txikitatik argi izan idazle izan nahi zuela. Gaur egun, idazle gisa, idaztea plazer handia dela adierazten du, benetan disfrutatzen duelako horrekin.

Bere ibilbide profesionalean, Goiatz komunikazio arloan aritu da. Oarsoaldeko Hitza egunkarian eta beste zenbait komunikabidetan lan egin edota kolaboratzen du. Unibertsitatean kazetaritza ikasi bazuen ere, ikasketen garaian idazteari utzi zion, irakurtzen jarraitu arren. Hala ere, karrera amaitu ondoren, berriz ere idazten hasi zen eta horri esker, bere lehen liburua argitaratzeko aukera izan zuen, Beasaingo Udalak antolatutako Igartza bekari esker. Proiektua aurkezterakoan, Goiatzen hitzak garbi azaltzen dute: "nik uste dut sariaren parte onenetarikoa dela zure proiektua argitaratu egiten dela" eta hori izan zen bere ibilbidearen lehen aukera garrantzitsua. Hala ere, nahiz eta aukera ederra izan, esperientzia ez zen batere erraza izan; izan ere, liburuak denbora eta dedikazio handia eskatzen du. Horren ondorioz, nahiko gogorra egin zitzaion Fotogramak liburua argitaratu ondoren, idazten jarraituko zuela pentsatzeak.

Liburuen idazketa prozesua eta izenburuaren garrantzia

Liburu bakoitzaren prozesua oso desberdina da. Batzuetan, idazteko 4 urteko epea behar da, beste batzuetan, berriz, 3 hilabetetan bukatzen da. Horregatik, idaztearen mundua ez da inoiz berdina, eta bakoitzak bere

erritmoa du. Behin liburua idatzi ondoren, argitaletxe batekin hitz egin behar da, eta horrek liburuaren ideia onartu behar du, gero liburua argitatu ahal izateko.

Goiatzen kasuan, poliki idazten duen pertsona da. Idatzi dituen liburu guztietatik "Zoo" da bere gogokoena, "izan daiteke berriena delako" dio idazleak. Aurretik esan bezala, liburu bat idazteko prozesua zaila izaten da, eta izenburua aukeratzea ere askotan kosta egiten da. Gainera, batzuetan argitaletxeek norberak sortutako izenburua aldatzen dute. Horregatik, oso garrantzitsua da hasieratik izenburu txukuna aukeratzea; izan ere, hori izango da irakurleari lehen bistadizoan iritsiko zaiona eta bere arreta bereganatuko duena. Bere esperientzia errealean, idatzi dituen liburu guztietatik, Bekatua izeneko liburua izan da zailena.

Fotogramak liburuaren inspirazioa eta idazteko prozesua

Goiatzek 7 liburu argitaratu ditu guztira: 5 narrazio liburu, nobela labur bat eta liburu ilustratu bat. Nahiz eta, liburu guztiak berak bakarrik idatzi, liburu ilustratuko irudiak bere lagun minak egin zituen berak testuak idazten zituen bitartean.

Argitaratu duen bigarren liburua Fotogramak deiturikoa izan da. Liburu honen funtsa edo berezitasunetako bat, istorio bakoitza argazki batean oinarritzen dela da. Izan ere, liburu hau idazteko prozesuan, abiapuntua argazki bat izan zen eta argazki bakoitzak narrazio bakoitza eraikitzeko inspirazioa eman zion. Gainera, idazleak argazkilaritza oso gogoko duenez eta argazki erakusketetan ere ikaragarri disfrutatzen duenez, aukera ezin hobe iruditzen zitzaion hamaika argazki desberdinetan oinarritutako liburu hau sortzea. Fotogramak liburuan Goiatzek zenbait argazki ezaguni mugimenduaren ilusioa eman die eta modu horretan, irakurleari hainbat lekutara bidaiatzeko aukera eman die, ikusten dena baino haratago.

Liburua idaztearen prozesua nahiko luzea izan zen, urte eta erdikoa hain zuzen ere. Idazterako orduan, Goiatz, bere egunerokotasunean bizitako gertakarietan oinarritzen da. Fotogramak liburuan erabilitako argazki horiek guztiak berak sortu ez dituen arren, iturri desberdinetatik lortu ditu eta ondoren, aukeraketa bat egin du. Batzuetan, argazki erakusketetara joatea oso gogoko duenez, bertako argazkietan oinarritu da, beste batzuetan, autore ezberdinen argazkietatik atera ditu adibideak edota istorio bat erraz islatzeko argazki aproposak aukeratu ditu.

Fotogramak liburuaren kasuan, izenburua aukeratzea ez zen erronka edo lan gogorra izan. Liburu honi Fotogramak izenburua jarri zion, istorioa eta gertakizunak hobekien islatzen dituen hitza delako. Izan ere, hamaika fotograma desberdinetan oinarritu da liburua idazteko; ondorioz, izenburu hori argia eta aproposa da, irakurlei lehen ideia orokorra transmititzeko.

Liburu osoaren hausnarketa modukoa egin ostean, bere istorio gustukoenetariko bat lehenengoa dela azpimarratzen du idazleak. "Izan daiteke argazkia asko gustatzen zaidalako" aipatu du Goiatzek. Istorio horrez gain, ate batetik zintzilik dagoen emakumearen istorioa, hau da, "Bai edo EZ agian" izeneko istorioa ere oso gustukoa du, istorio guztietatik desberdinena edota ez ohikoa den argazkia delako.

Fotogramak liburuaren argazkiak ez dira errealak, kasu batzuetan pertsonaiak edota kontatzen diren zenbait datu eta testuinguruak errealak izan arren. Beste kasu batzuetan ordea, Goiatzek lizentziak hartzen ditu edota istorioa gertatzen den leku eta testuingurua ere aldatu egiten du. Idazleak benetan idazten duena transmititzen saiatzen da modu hunkigarrian. Horretarako, bere lanek esfortzu eta dedikazio handia eskatzen dute eta irakurleei ahalik eta gehien gustatzeko ahalegina egiten du.

Etorkizunari begira, liburu gehiago ateratzeko asmoa du; izan ere, laister, beste bat argitaratuko du.

“Gaur egungo idazle berriei, asko irakurtzea eta benetan gustukoa dutena idaztea gomendatuko nieke ”

Goiatz Labandibarren arabera, idazle berriek kontuan hartu beharko liztuzketen bi aholkuak honakoak dira: lehenik eta behin, asko irakurtzea; izan ere, Goiatzek ez du imajinatzen irakurtzen ez duten idazlerik, nahiz eta horrelako kasuak egon. Bigarren aholku bezala, idazterakoan ez lotsatzea gomendatuko luke. Idazleak azaldu

duenez, norberaren sentimenduetan murgilduz eta benetan gustukoa dutena idazten dutenek soilik aurkitzen dute idazketaren benetako esanahia, besteek gustukoa dutena bilatzearen ordez. Ondorioz, idazterako orduan, norberaren emozioetan bidaiatzea eta bihotzak eskatzen duena jarraitu behar dela nabarmentzen du Labandibarrek.



7

Goiatzek idatzi dituen liburu ezagunenak:

- Geltokiak edo helduta entzuteko abestiak (2013).
- Fotogramak (2016).
- Hori zen dena (2019).

- Amez (Narrazioa).
- Bekatua (2023).
- Putzua (2024).
- Zoo (2024).

2013

Sariketa batera aurkeztu zen lehen urtea.